



TOLOSAKO  
UDALA

**HITZARMENA HAUEN ARTEAN:  
TOLOSAKO UDALA ETA EUSKAL  
FONDOA-ASOCIACIÓN DE ENTIDADES  
LOCALES VASCAS COOPERANTES - 2016**

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE  
TOLOSA Y EUSKAL FONDOA-  
ASOCIACIÓN DE ENTIDADES LOCALES  
VASCAS COOPERANTES - 2016**

Tolosan, 2016ko apirilaren 28an

En Tolosa a, 28 de abril de 2016

### **BILDU DIRA**

Maite Etxebarria Azpiolea, EUSKAL FONDOA-Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes elkartearen Lehendakariaren izenean.

Eta Tolosako alkatea, Olatz Peon Ormazabal, Tolosako Udalaren izenean jardunez.

### **ADIERAZI DUTE**

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2016ko apirilaren 18n, erabaki zuela dirulaguntza ematea EUSKAL FONDOARI "Norberak eraikitako 20 etxebizitza. V. Fasea (Nikaragua)" izeneko proiekturako.

### **ETA HURRENGO HAU HITZARTU DUTE**

#### **LEHENA:**

Tolosako Udalak 7.055 eurorekin finantzatu du "Norberak eraikitako 20 etxebizitza. V. Fasea (Nikaragua)" deritzon proiektua.

#### **BIGARRENA:**

EUSKAL FONDOA elkarteak bidezko diren tramiteak egingo ditu entitate kofinantzarioen aurrean, egintza aurrera eraman ahal izateko beharrezko diren kreditu guztiak lortzeko edo,

### **REUNIDOS**

De una parte, Maite Etxebarria Azpiolea, en su calidad de Presidente de EUSKAL FONDOA-Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes.

Y de otra, Olatz Peon Ormazabal, alcaldesa de Tolosa, actuando en representación del Ayuntamiento de Tolosa.

### **MANIFIESTAN**

Que el Ayuntamiento de Tolosa, por acuerdo de la Junta de Gobierno del 18 de abril de 2016, ha concedido a EUSKAL FONDOA una subvención al proyecto "Autoconstrucción de 20 viviendas. 5ª fase (Nicaragua)".

### **CONVIENEN**

#### **PRIMERO:**

El Ayuntamiento de Tolosa financia con 7.055 euros el proyecto "Autoconstrucción de 20 viviendas. 5ª fase (Nicaragua)".

#### **SEGUNDO:**

EUSKAL FONDOA se obliga a realizar los trámites necesarios ante las entidades cofinanciarias, para obtener todos los créditos necesarios o, en su defecto, el compromiso



halakorik ez badago, proiektuaren kostu osoa eta subentzionatutakoaren arteko diferentzia beregaintzeko konpromisoa erdiesteko.

#### **HIRUGARRENA:**

Kontratu hau izenpetzen duen Udalak eman beharreko diru-kopurua ordainduko da hitzarmena sinatutakoan.

#### **LAUGARRENA:**

Diruz lagundutako ekintza ondo burutzeko ardura Euskal Fondoak edukiko du soilik Tolosako Udalaren aurrean; eta, horretarako, ekintzaren hasieraren gaineko txostenak eman beharko ditu.

#### **BOSTGARRENA:**

Behin proiektuaren exekuzioa bukatuz gero, subentzionatutako entitateak aurkeztu behar du aurrera eramandako ekintzaren edo egindako lanaren gaineko txosten oso bat, eta horrekin batera egindako programaren kostu osoa egiaztatzen duten agiriak eta Tolosako Udalak emandako diru-laguntzari dagozkion ordainagiriak.

#### **SEIGARRENA:**

Euskal Fondoak edozein unetan aurkeztu beharko du, Tolosako Udalak hala eskatzen badio, zabalkunde eta sentsibilizazio lanetarako subentzionatutako programaren gaineko dokumentazio grafiko eta idatzia, bai berea bai bere pertsonalarena eta bere bazkideena.

Subentzioa jaso duen entitateak kontratuko betebeharrak betetzen ez baditu, Udalak ahalmena izango du kontratua eteteko eta baita deuseztatzeko ere eta, subentzionatutako entitateak erruzko jokaera izan badu, eskatu ahal izango du ordaindutako kopurua oso-osoan edo zati bat itzultzeko.

de cubrir la diferencia entre la cantidad subvencionada y el coste real para poder llevar a cabo el proyecto.

#### **TERCERO:**

La cantidad aportada por el Ayuntamiento que suscribe el presente convenio se abonará una vez firmado el mismo.

#### **CUARTO:**

Euskal Fondoak será la única responsable ante el Ayuntamiento de Tolosa de la correcta realización de la acción que se subvenciona, facilitando informes sobre la iniciación de la misma.

#### **QUINTO:**

Una vez finalizada la ejecución del proyecto, la entidad subvencionada presentará un informe completo sobre la acción desarrollada o la obra realizada, junto con los documentos acreditativos del coste real del programa acometido y los justificantes de pagos correspondiente a la aportación económica emitida por el Ayuntamiento suscribiente del presente convenio.

#### **SEXTO:**

En cualquier momento, previa petición del Ayuntamiento de Tolosa, Euskal Fondoak aportará tanto documentación gráfica y escrita suya como de su personal y socios acerca del programa subvencionado para tareas de divulgación y sensibilización.

Si la entidad subvencionada no cumple las obligaciones derivadas de este convenio, el Ayuntamiento suscribiente está facultado para suspender e incluso rescindir el mismo y, en caso de actuación culpable de la entidad subvencionada, podrá exigir la devolución total o parcial del pago efectuado.



TOLOSAKO  
UDALA

#### ZAZPIGARRENA:

Bi kontratugileak daude behartuta kontratu hau, dagozkien klausuletan, betetzera, eta biek berariaz jartzen dira aplikagarri zaizkien Erregimen Lokaleko Legeriaren xedapenen mende, kontratu honek aurreikusten ez duen guztian.

#### ZORTZIGARRENA:

Hitzarmen hau sinatzen dutenak Tolosako auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira, eta uko egingo diote berariaz beren eskumenei eta helbideari dagozkien jurisdikzioari, Hitzarmen honen interpretazioari edo betetzeari dagozkion guztian.

Hala jasota gera dadin, kontratugileek agiri honetan adierazitakoa berretsi eta dokumentu hau eta bere kopiak sinatu egin dituzte Tolosan, goian adierazitako egunean.

#### SEPTIMO:


Ambos contratantes quedan obligados al cumplimiento de este convenio en las cláusulas que les afecten y se someten expresamente a las preceptos de la Legislación de Régimen Local que le sean aplicables en lo no previsto en el mismo.

#### OCTAVO:

Las partes firmantes del presente convenio se someterán a la jurisdicción de los tribunales de Tolosa, haciendo renuncia expresa a la jurisdicción de sus propios fueros y domicilio, en todo aquello que haga referencia a la interpretación y cumplimiento de este Convenio.

Y para que conste, los otorgantes se afirman y ratifican en lo expuesto en el presente documento, firmándolo por triplicado y a un sólo efecto, en Tolosa, en la fecha indicada en el encabezamiento.

Euskal Fonda



EUSKAL  
FONDOA  
G-48772487

Alkatea



Nire aurrean  
Ante mí,



Jose Luis Unanue Ugalde  
Idazkaria/El Secretario

